

Buletina

03

2023ko urtarrila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak

Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia
Erkidegoko
gizarte-aurreikuspen
osagarriaren
behatokia**



EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA






Euskadiko pentsio-sistema publikoaren erradiografia

Infografia honek, Behatokiak egina, Euskadiko pentsio-sistema publikoari buruzko funtsezko adierazleen panel bat jasotzen du. Emaitzek erakusten dutenez, Euskadin: 1) pentsiodunen kopurua 500.000 pertsonarik gorakoa da 2022an, 2) pentsiodun bakoitzeko langileen ratioa jaitxi egin da, 3) Estatu osoko batez besteko pentsiorik handiena du Euskadik, baina alde handiak daude pentsio motaren eta erregimenaren arabera, 4) erretiro-pentsio berrien batez besteko zenbatekoa handiagoa izan da baja eman dutenena baino, 5) ordezkapen-tasa jaitxi egin da, % 75,1ekoa izan baita, eta 6) pentsioetako gastu publikoa etengabe hazi da, azken 15 urteetan bikoiztu egin baita.

[Informazio gehiago](#)



Pentsio-plan eta -funtsen erregelamendua aldatu da

Urriaren 18ko 885/2022 Errege Lege Dekretuak pentsio-planen eta -funtsen erregelamendua aldatzen du. Enpleguko pentsio-planak bultzatzeko erregulazioari buruzko ekainaren 30eko 12/2022 Legearen erregelamendu bidezko garapena ezartzen du, benetan praktikan jartzeko. Erregelamendu bidezko garapen partziala da, eta haren helburu nagusia da hura aplikatzea ahalbidetuko duten ezinbesteko elementuak arautzea, hala nola sustapen publikoko enpleguko pentsio-funtz irekien Sustapen eta Jarraipen Batzordea eta Kontrol Bereziko Batzordea. Era berean, sustapen publikoko enpleguko pentsio-funtzen (FPEPP) erakunde kudeatzaile eta gordailuzainen ordainsarien araubidea ezartzen da.

[Informazio gehiago](#)



Espainiako enpresen % 28k bakarrik du aurreikuspen-plan bat

KPMG Espainiako pentsioen egoera aztertzen duen urteko azterketaren VI. edizioa argitaratu du, eta edizio honetan, pentsioen sistema publikoaz eta ezarritako erreformez haratago, pentsioen sistema pribatuari (gizarte-aurreikuspen osagarria) lotutako atal espezifiko bat jasotzen da, Espainiako enpresei egindako inkesta batetik abiatuta. Emaitzek erakusten dute enpresen % 28k aurreikuspen-plan bat dutela eta gehienek (% 62) plantilla osoa estaltzen dutela. Bestalde, enpresen % 26k eta % 33k bakarrik adierazi dute enplegu-plan sinplifikatuak (PPES) edo sustapen publikoko enpleguko pentsio-funtz berriak (FPEPP) ezagutzen dituztela, eta horrek agerian uzten du enpresei horren berri emateko beharra.

[Informazio gehiago](#) (dokumentuan sartzeko, alta eman behar da)

INSTITUTO DE ESTUDIOS ECONÓMICOS

Por una mejora de los incentivos fiscales a los planes de pensiones

Análisis comparado de la tributación actual del segundo y tercer pilar en Europa

OPINIÓN DEL IEE
Octubre 2022

Pentsio-planetarako pizgarri fiskalak hobetzeko beharra

Azterlan Ekonomikoen Institutuak (IEE) egindako txostena, Europan pentsio-sistemen bigarren eta hirugarren zutabeetan aplikatzen den esparru fiskalaren alderaketa jasotzen duena, Espainiako egoerari dagokionez. Zentzu horretan, pentsio-planetara bideratutako pizgarri fiskalak hobetzeko beharra azpimarratzen du, Espainian Europako beste herrialde batzuekin alderatuta ikusitako desabantailazko tratamendua arintzeko. Horretarako, pentsio-planen erregulazio- eta zerga-esparrua hobetzeko zenbait neurri proposatzen ditu.

[Informazio gehiago](#)

BBVA
Research

Los sistemas de pensiones de reparto en el contexto demográfico actual: España y la UE

Rafael Doménech
APIE

Madrid, 3 de noviembre de 2022

Biztanleriaren zahartzearen eragina banaketa-pentsioen sistemetan

BBVA Research-ek Espainiako eta EBko banaketa-pentsioen sistemei buruzko txosten bat argitaratu du, sistema horien iraunkortasunean eragina duen biztanleriaren zahartze-prozesua ardatz hartuta. Itxura guztien arabera, mendekotasun-tasa bikoiztu egingo da Europako herrialde guztietan 2020tik 2060ra bitartean, eta erronka izango da oreka aurkitzea pentsioen nahikotasunaren eta iraunkortasunaren artean, eta sistemaren aldaketak (erreformak) ekitatiboak izatea aldaketa horiek eragiten dieten belaunaldien artean.

[Informazio gehiago](#)



OECD Pensions Outlook
2022



ELGAKo herrialdeetako pentsio-politiken erradiografia

Pensions Outlook ELGAK bi urtean behin egiten duen txostena da, eta azken edizioan (2022) pentsio-politikek biltzen dituzten alderdiak aztertzen ditu, hala nola esparru publikoa eta pribatua, banaketa- eta kapitalizazio-sistemak, prestazio definitua edo ekarpen definitua, etab. Gainera, 2022ko edizioak heriotza-tasa estandarren taulak garatzearekin lotutako jardunbide egokiak identifikatzen ditu, bizi-itxaropenari lotutako bizitza osoko erretiro-pentsioak (biziarteko pentsioak) kalkulatzeko oinarria baitira. Bestalde, azken kapituluak bermatu gabeko pentsio-planen diseinua, inplementazioa eta funtzionamendua jorratzen ditu, hala nola ekarpen definituko plan kolektiboak, helburuen arabera pentsio-planak, tontinak, etab.


[Informazio gehiago](#)



Espainiako pentsio-sistema, Europar jasangarritasun gutxien duenetako bat

Global Pension Index adierazlearen edizio berria (2022) argitaratu du Mercer-ek. Mundu osoko 44 pentsio-sistema ebaluatzen ditu, hiru indize partzial batzen dituen adierazle global batetik abiatuta: pentsio-sistemaren egokitzapena, iraunkortasuna eta osotasuna. Emaitzek erakusten dute Espainia 26. postuan dagoela ranking orokorrean, bere posizioa okertuz (22) 2021eko datuekin alderatuta. Okerren baloratutako elementua sistemaren iraunkortasuna da (28,7) osotasunaren (78,9) eta egokitasunaren (80) aurrean, eta horrek Espainiako pentsioen sistema Europar jasangarritasun gutxien duenetakoen artean kokatzen du Italiaren (23,1) eta Austriaren (22,7) atzetik. Islandia, Herbehereak eta Danimarka dira sailkapen orokorreko buru, indize honen arabera pentsio sistemarik onenak bezala.

[Informazio gehiago](#)



Europako epe luzeko aurrezkian eta pentsioetan lortutako errentagarritasunak

Finantza Zerbitzuen Inbertitzaile eta Erabiltzaileen Europako Federazioak (BETTER FINANCE) "Aurrezpen Aurreikuslearen eta Epe Luzeko Aurrezkiaren Benetako Itzulera" txostenaren 10. edizioa argitaratu du. Txosten horrek Europako 16 herrialdeetako epe luzerako aurrezki pribatuaren eta pentsioen (2. zutabea-enpleguko eta 3. zutabea-borondatezko aurrezkiak) errentagarritasunen bilakaera biltzen ditu. Era berean, herrialdeentzako berariazko atal bat ere badu, eta bertan jasotzen dira pentsio-sistemaren konfigurazioa (zutabeak) eta lortutako errentagarritasunei, pentsio-planen estaldurari, ordezkapen-tasari eta abarri buruzko zifra nagusiak. Gainera, azterlanak online plataforma bat ere badu, eta bertan, produktu motaren arabera, zehatz-mehatz kontsulta daitezke benetako itzulerak.

[Informazio gehiago](#) ; [Online plataforma](#)

Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)